

## BARATZE LURRAK EZ ZAPALTZEAREN GARRANTZIA BUSTITA DAUDENEAN



Gipuzkoa euri ugari gunea da eta aire zabalean ditugun baratzeek ur asko jasotzen dute, batez ere zenbait garaietan. Euri-ura gure baratzeetako lurren gainera erortzen denean, uraren zati batek maldan beheara ihes egiten du egiten, beste zati bat lurzoruaren geruza sakonetara iragazten da, eta uraren zati bat lurrazaleko lehenengo zentimetroetan geratzen da, denborarekin lurrunduz.

Baina neguan, eguzkiaren bero-ahalmena urteko beste garai batzuetan baino askoz txikiagoa denean, lurzoruak hezeak edo bustiak egon daitezke luzaroan.

### Oinarrizko edafologia pixka bat

Lurzoruaren zati fisikoa tamaina desberdinetako partikulen nahasketa batek osatzen du (harea, lohi eta buztinak, handienetik txikienera). Partikula horien artean, urak eta aireak okupatutako poroak daude.

Oreka egon behar du lurreko uraz beteta eta aireaz beteta dauden poroen artean, funtsezkoak baitira biek lurreko mikroorganismoen bizitzarako eta gure landareen sustraietarako: landareek urarekin nahastuta xurgatu behar dituzte lurreko elikagaiak (elikagai ugari duen lurra, lehorra badago, ez da landareak elikatzeko gai), eta, era berean, aireko oxigenoa behar-beharrezkoa da landareek eta lurreko mikroorganismoek beren funtzio asko egin ditzaten.

Gipuzkoako lurzoru gehienak buztin proportzio handiko lurra dira. Horregatik, poro txiki asko (urak betetzen dituenak) eta poro handi gutxi (aireak okupatuak) dituzte. Ondorioz, nahiz eta elikagaietan lur aberatsak izan, nahiko lur iragazgaitzak izaten dira, gutxi aireztatuak eta lantzeko neketsuak.

## Ura eta lurzoruen trinkotzea

Lur bat zenbat eta bustiago egon, orduan eta poro gehiago beteko dira urez, poro horietan zegoen airea kanporatuz.

Gainera, euri-ura lurraren gainean talka egiteak, eta lur-azalerako lehenengo zentimetroetan metatzen den uraren pisuak, lurra trinkotzen dute, eta, ondorioz, aire-poroak murrizten dira eta uraz betetako poroen kantitatea berriz handitzen da.

Lur trinkotu batek, beti bustia badago, landareak hil egin ditzake sustrai-asfixiaren ondorioz, baita baratzezaintza ekologikoan onuragarriak diren organismo aerobiko asko ere.

Gainera, aurrez trinkotutako lur busti bat zapaltzen badugu, gaintrinkotzea eragingo dugu, urak eragindako ondorio negatiboak areagotuz.

Lurrak trinkotzeak ez dakar lurraren oxigenazioa galtzea bakarrik. Gainera, lurraren egitura desegiten da, lur kozkorrak masa plastikoa bihurtuz, eta, lehortutakoan (batez ere buztin askoko lurrak), lurra lantzeko askoz lan gehiago eskatuz.

## Beraz, zer egin baratzeko lurra bustita dagoenean?

Arau nagusia ez zapaltzea eta ez lantzea da. Eta beti lehortzen utzi, landu aurretik.

Horregatik, neguan, tenperatura baxuen ondorioz landareen hazkundea moteltzen denean, eta lurrak bustita daudenean, hobe da baratzean lanik ez egitea, eta soilik zapaltzea, etxera eramán nahi ditugun barazkiak biltzeko.